ZARAUZKO UDALA

ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA		**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS DE CONTRATO DE SERVICIOS**
ZARAUZKO IKASTETXEETAN DBH-KO IKASLEEKIN HIZKUNTZA ASERTIBITATEA, KONTZIENTZIA LINGUISTIKOA ETA HIZKUNTZA PORTAERA EKOLOGIKOAK LANTZEKO PROIEKTU INTEGRALA DISEINATZEA ETA GAUZATZEA **2021IK200010**		**DISEÑO Y DESARROLLO DEL PROYECTO INTEGRAL PARA TRABAJAR LA ASERTIVIDAD LINGÜÍSTICA, LA CONCIENCIA LINGÜÍSTICA Y LAS CONDUCTAS LINGÜÍSTICAS ECOLÓGICAS CON EL ALUMNADO DE ESO EN LOS CENTROS DE ZARAUTZ** **2021IK200010**
1.-KONTRATUAREN XEDEA Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratuaren helburua honakoa da: Zarauzko ikastetxeetan DBHko ikasleekin hizkuntza asertibitatea, kontzientzia linguistikoa eta hizkuntza portaera ekologikoak lantzeko proiektu integrala diseinatzea eta gauzatzea.		**1.- OBJETO DEL CONTRATO** El objeto del contrato que se realizará en base a este documento es el diseño y ejecución de un proyecto integral para trabajar la asertividad lingüística, la conciencia lingüística y los comportamientos lingüísticos ecológicos con el alumnado de la ESO en los centros escolares de Zarautz.
2.- PROIEKTUAREN OINARRIZKO IRIZPIDEAK Euskararen normalizazioa gizarte eraldaketa prozesu sakona da, eta DBHko gazteak euskaraz bizitzeko hautua egin dezaten prestatu nahi ditugu, bizikidetza, eleaniztasuna eta erantzukizun soziala aintzat hartuta. Ikasleak euskal hiztun moduan ahalduntzea dugu helburu, eta horretarako, ikasleen trebakuntza soziolinguistikoa indartuko dugu eta euskararekiko duten atxikimendua indartzeko alderdi emozionala ere landuko dugu. Hizkuntzen Ekologia/Hizkuntzen Iraunkortasuna jarriko ditugu hizkuntza-diskurtsoaren zutabe, eta, besteak beste honako gaiak landuko ditugu eurekin: hizkuntza aniztasuna, hiztunen arteko aukera berdintasuna, arnasguneen gaia, Zarauzko datuak, eusle izateko estrategiak, beraien nahiak, beharrak eta sentimenduak…		**2.- CRITERIOS BÁSICOS DEL PROYECTO** La normalización del euskera es un proceso de transformación social, y queremos formar al alumnado de la ESO para que opten por vivir en euskera, teniendo en cuenta unos valores como la convivencia, el plurilingüismo y la responsabilidad social. Nuestro objetivo es el empoderamiento del alumnado como hablante euskaldun, reforzando su formación sociolingüística y trabajando también el aspecto emocional para reforzar su apego al euskera. El discurso lingüístico se basará en la Ecología de las Lenguas/Sostenibilidad de las Lenguas y abordará temas como la diversidad lingüística, la igualdad de oportunidades entre las personas hablantes, el tema de los *arnasgunes* o espacios vitales del euskera, los datos de Zarautz, las estrategias para no cambiar de idioma, sus deseos, necesidades y sentimientos.

Lau urterako egitasmoaren diseinua, planifikazioa eta materialaren lanketa lehen ikasturtean egingo da, hainbat eragilerekin elkarlanean (Zarauzko Udala, herriko ikastetxeak, Berritzegunea…) eta DBHko ikasleek dituzten beharrak eta gaitasunak kontuan hartuta.		El diseño, planificación y elaboración del material del proyecto cuatrienal se realizará en el primer curso, en colaboración con diferentes agentes (Ayuntamiento de Zarautz, centros escolares de Zarautz, Berritzegune…) y teniendo en cuenta las necesidades y características del alumnado de la ESO:
Hurrengo hiru ikasturtetan, kontratua luzatuko balitz, proiektua ezarri eta sistematizatu egingo da, DBHko ikasleen hizkuntza portaeretan eragiteko eta euskararen erabilera sustatzeko metodologia eta baliabideak finkatuz.		En los próximos tres cursos, en el caso de que se prorrogara el contrato se implementará y sistematizará el proyecto, fijándose una metodología y unos recursos para incidir en los comportamientos lingüísticos del alumnado de la ESO y fomentar el uso del euskera.
4 ikasturtetan DBH4ko ikasleei soziolinguistika saioak eskaintzea aurreikusten dugu, eta horretaz gain, enpresa esleipenduna arduratuko da proiektua koordinatzeaz eta irakasleak formatzeaz.		Se prevé que en 4 cursos se ofrezcan sesiones de sociolingüística al alumnado de 4º de ESO, y además la empresa adjudicataria se encargará de coordinar el proyecto y formar al profesorado.
3.- LAN-TALDEAREN ZEREGINAK		**3.- TAREAS DEL EQUIPO DE TRABAJO**
Jarraian, ikasturtez ikasturte aurreikusitako lanak adierazten dira:		Se indican a continuación los trabajos previstos por cada curso:
<u>2021-2022 ikasturtea</u> 1.- Lau urteko egitasmoaren diseinua eta planifikazioa egin 2.- Materiala prestatu 3.- Proiektuaren koordinazioa 4.- Irakasleen formazioa 5.- Ikasleentzako soziolinguistika saioak		<u>Curso 2021-2022</u> 1.- Diseño y planificación del proyecto cuatrienal 2.- Preparación del material 3.- Coordinación del proyecto 4.- Formación del profesorado 5.- Sesiones sociolingüísticas para el alumnado
Kontratua beste hiru ikasturtez luzatu ahal izango da gehienez ere, eta gutxienez, honako lanak egingo dituzte, ikasturte bakoitzean:		El contrato podrá prorrogarse hasta un máximo de tres cursos académicos, en cuyo caso deberán realizarse como mínimo las siguientes funciones por curso:
1.- Proiektuaren ezarpena eta sistematizazioa 3.- Proiektuaren koordinazioa 4.- Irakasleen formazioa 5.- Ikasleentzako soziolinguistika saioak		1.- Implementación y sistematización del proyecto 3.- Coordinación del proyecto 4.- Formación del profesorado 5.- Sesiones sociolingüísticas para el alumnado
Etengabeko ebaluazioa egiteaz gain, prozesu osoa ere ebaluatu eta sozializatu		Además de llevar a cabo la evaluación continua, se realizará y socializará la evaluación de todo el

egingo da. Era berean, prozesuaren sistematizazioa egingo da, batetik, bere indarguneak azpimarratzeko eta, bestetik, ahuleziak gaindituko dituen proposamen metodologikoak egiteko etorkizunerako.		proceso. Del mismo modo, se realizará la sistematización del proceso para subrayar sus fortalezas y para sugerir propuestas metodológicas de futuro para superar las debilidades.
Lanketa hau gauzatzerakoan, uneoro koordinazioan arituko dira euskara arduradunarekin, ikastetxeko irakasle arduradunekin edo zentroek izendatutako beste edozeinekin, eta hezkuntza arloko herriko gainerako eragileekin (Berritzegunea…), zerbitzuaren aurkezpena, garapena, jarraipena eta ebaluazioak egiteko.		Durante la ejecución de este contrato, se coordinará en todo momento con la persona responsable de Euskera, con el profesorado responsable del centro o con cualquier otro designado por los centros, y con el resto de agentes del ámbito educativo del municipio (Berritzegune…), para la presentación, desarrollo, seguimiento y evaluaciones del servicio.
Orokorrean, udal-arduradunak adierazitako jarraibide eta orientabideak bete beharko ditu.		Con carácter general, deberá seguir las instrucciones y orientaciones que le indique el responsable municipal.
Ikasturte bakoitzaren amaieran ikasturte bukaerako balorazio-txostena prestatuko da, besteak beste, hurrengo urterako neurri zuzentzaileak proposatuz.		Al final de cada curso se elaborará un informe de valoración final de curso, proponiendo, entre otras, medidas correctoras para el año siguiente.
4.- KOORDINAZIOA		**4.- COORDINACIÓN:**
Proiektu horren diseinua eta garapena hezkuntzako eragileekin elkarlanean egingo da.		El diseño y desarrollo de este proyecto se realizará en colaboración con el personal educativo.
Prozesuan zehar enpresa arduratuko da proiektuko eragile desberdinen (irakasleak, ikasleak, hezkuntza erakundeetako aditu eta langileak…) parte-hartze saioak dinamizatzeaz eta antolatzeaz, bai diseinu fasean, eta bai proiektuaren garapenean.		Durante el proceso la empresa adjudicataria se encargará de dinamizar y organizar las sesiones de participación de los diferentes agentes del proyecto (profesorado, alumnado, expertos y personal de instituciones educativas), tanto en la fase de diseño como en el desarrollo del proyecto.
COVID-19ak sortutako egungo egoera dela-eta, adjudikaziodunak prozesuaren eskura jarriko ditu une bakoitzean beharrezkoak diren komunikazio- eta partaidetza-bide guztiak: aurrez aurrekoak (Udalak proposatutako osasun-protokoloak betetzen direla bermatuta), aplikazio digitalak, on line…		Dada la situación actual creada por el COVID-19, la empresa adjudicataria pondrá a disposición del proceso todos los canales de comunicación y participación necesarios en cada momento: presenciales (garantizando el cumplimiento de los protocolos sanitarios propuestos por el Ayuntamiento), aplicaciones digitales, on line…
Koordinazioaren arduradun nagusia Udaleko Euskara arduraduna izango da.		La responsable de la coordinación será la persona responsable de Euskera del Ayuntamiento.

5.- MEMORIAK ETA LAN-PROGRAMAZIOA	**5.- MEMORIAS Y PROGRAMACIÓN DEL TRABAJO.**
Kontratuak indarrean dirauen bitartean, eskatzen dizkion urteko memoria guztiak aurkeztu beharko dizkio esku-hartzeko lan-taldeak udalari.	El equipo de intervención presentará al Ayuntamiento las memorias anuales que requiera a lo largo de la duración del contrato.
Halaber, bere lanari buruzko eta zerbitzu-hartzaileei buruzko txosten guztiak aurkeztu beharko dizkio udalari, eskatuz gero, eta txosten horien konfidentzialtasuna gordeko du beti.	El equipo de intervención facilitará todos aquellos informes relativos a su trabajo y a los destinatarios que sean requeridos por el ayuntamiento, respetando en todo caso la confidencialidad de los mismos.
6.- LAN-TALDEA	**6.- CARACTERÍSTICAS DEL EQUIPO:**
Zerbitzua emateko, lan-taldea osatuko da.	Para la prestación del servicio se constituirá un equipo de trabajo.
Teknikari batek izango du talde profesionalaren ardura, eta bera izango da Udaleko teknikarien solaskidea.	Una persona técnica se hará cargo del equipo profesional y será la interlocutora del personal técnico del Ayuntamiento.
Pertsona horretaz gain, gutxienez beste bi langile kontratuari atxikituko dizkio adjudikaziodunak proiektuaren garapenerako, eta horiek arduratuko dira DBHko ikasleekin zuzeneko lanketa egiteaz ere (soziolinguistika saioak emateaz…). Lan-taldeko kide horiek gutxienezko ikasketa hauek dituztela egiaztatu beharko dute: Euskal Filologia, Soziologia, HIZNET-Hizkuntza Plangintza Graduondoa edo "Euskararen Jabekuntza, Kudeaketa eta Hizkuntza-praktikak XXI. Mendean" titulua.	Además de esta persona, la empresa adjudicataria adscribirá al contrato al menos dos personas trabajadoras más para el desarrollo del proyecto, que a su vez trabajarán directamente con el alumnado de la ESO (impartir clases sociolingüísticas…). Estas personas del equipo de trabajo deberán acreditar que cuentan con los siguientes estudios mínimos: Titulación en Filología Vasca, Sociología, HIZNET-Graduado en Planificación Lingüística o el título "Euskararen Jabekuntza, Kudeaketa eta Hizkuntza-praktikak XXI. Mendean".
DBHko ikasleekin zuzeneko lanketa egingo duten bi pertsonek, derrigorrez izan beharko dute adimen emozionalari buruzko formazioa (psikologia arloko formazioa, coach ikasketak, fazilitazio formazioa…) edo DBHko gaztetxoen hizkuntza portaeretan eragiteko egitasmoetan esperientzia (gutxienez 2 ikasturtetan parte hartu izana).	Las dos personas que vayan a trabajar directamente con el alumnado de la ESO deberán tener formación obligatoria en inteligencia emocional (formación psicológica, estudios de coach, formación de facilitador) o experiencia en proyectos para incidir en los comportamientos lingüísticos de la juventud de la ESO (haber participado en al menos 2 cursos).
Proiektuari atxikitako pertsonen curriculuma eta dagozkion agiriak aurkeztu	Se deberá presentar el currículum de las personas adheridas al proyecto y la documentación correspondiente para su posterior comprobación

beharko dira, hemen jasotakoak egiaztatu ahal izateko.		
7. EXEKUZIOA		**7. EJECUCIÓN**
Proiektuaren diseinua eta material prestaketa enpresak bere egoitzan egingo du.		El diseño del proyecto y la preparación de material lo realizará la empresa adjudicataria en su sede.
Hala ere, koordinazioa eta bestelako lan saioak Udalak zehaztutako lokaletan egingo dira.		De todas formas, la coordinación y otras sesiones de trabajo se realizarán en los locales que determine el Ayuntamiento.
Ezarpen faseari dagokionez, oro har, zerbitzua herriko ikastetxeetan eskainiko da. Hala ere, egoerak hala eskatzen badu, beste tokiren batean ere eskaini ahal izango da, beti ere ikastetxeekin eta udal arduradunarekin adostuta.		En cuanto a la fase de implantación, con carácter general, el servicio se ofrecerá en los centros escolares de la localidad. No obstante, si la situación lo requiere, también se podrá ofertar en algún otro lugar, siempre de acuerdo con los centros y la persona responsable municipal.
8. BALIABIDE MATERIALAK		**8. RECURSOS MATERIALES**
Zarauzko Udalak ez du bulego materialik, material informatikorik, ekiporik, inpresio lanetarako gailurik edota antzekorik jarriko adjudikaziodunaren esku. Adjudikaziodunak, zerbitzuak hala behar izanez gero, bere baliabide material propioak jarriko ditu.		El Ayuntamiento de Zarautz no pondrá a disposición de la empresa adjudicataria material de oficina, materiales informáticos, equipos, dispositivos de impresión, etc. La empresa adjudicataria aportará, en caso de necesidad del servicio, sus propios medios materiales.
Koordinazio lanetarako eta bestelako lan saioetarako beharrezkoak izango diren lokalak, berriz, Udalak utziko ditu		No obstante , el Ayuntamiento cederá los locales necesarios para las labores de coordinación y otras sesiones de trabajo